

# *Egoeraren Azterketa*



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Enplegu prekarioa hazi da**

**Behin-behinekotasunean eta langabezian Europako azkenak**

**Langabezia: estaldura murriztu eta epe luzeko langabezia hazi**

**Kontratu berriak: behin-behinekotasuna eta partzialitatea**

**Gizarte Segurantzako afiliatuen %10 galdu da**

**Errekuperazioa eta hazkundearen iruzurra**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan- eta ekonomi-egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (**)</b>			
JARDUERA TASA (%)	76,4	2014ko IV. HIRUHILEKOA	75,8
JARDUERA TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	72,6	2014ko III. HIRUHILEKOA	72,2
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.138.800	2014ko IV. HIRUHILEKOA	1.131.300
SOLDATAKO BIZTANLERIA	947.400	2014ko IV. HIRUHILEKOA	934.500
ALDI BATERAKO TASA (%)	22,3	2014ko IV. HIRUHILEKOA	21,3
ALDI BATERAKO TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	14,4	2014ko III. HIRUHILEKOA	14,1
BIZTANLERIA LANGABETUA	220.500	2014ko IV. HIRUHILEKOA	224.300
LANGABEZI TASA (%)	16,2	2014ko IV. HIRUHILEKOA	16,5
LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,8	2014ko III. HIRUHILEKOA	10,6
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	42	2014ko IV. HIRUHILEKOA	47
GAZTEEN LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	21,3	2014ko III. HIRUHILEKOA	23,2
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	16,0	2014ko IV. HIRUHILEKOA	16,7
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	10,1	2014ko III. HIRUHILEKOA	10,7
SINATURIKO KONTRATUAK	1.049.128	2014ko ABENDUA	934.890
KONTRATATU MUGAGABEAK	68.102	2014ko ABENDUA	57.050
<b>ESKAINNTZA ETA ESKARIA</b>			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	3,0	2015eko URTARRILA	-1,2
BPGd EAEn (%ALD.)	0,9	2014ko IV. HIRUHILEKOA	-1,5
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	1,6	2014ko IV. HIRUHILEKOA	-1,6
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	2,0	2014ko IV. HIRUHILEKOA	0
BPGd 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1,3	2014ko IV. HIRUHILEKOA	0,9
<b>PREZIOAK</b>			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	-1,1	2015eko OTSAILA	0,0
URTEARTEKO KPIa 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	-0,3	2015eko OTSAILA	0,7
Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkie. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.			
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra			
2015/03/05ean eguneraturiko informazioarekin			



# Aurkibidea

## EGOERAREN AZTERKETA

1. Enpleguaren egoera.....	4
2. Langabezia, behin-behinekotasuna, eta Europako datuak .....	5
3. Langabezia eta langabeziaren estaldura .....	7
4. Kontratazioa .....	9
<i>Aldi baterako kontratazioa .....</i>	9
<i>Lanaldi murriztuen kontratazio .....</i>	9
5. Gizarte Segurantzarako afiliazioa...	9
6. Errekuperazioa eta hazkundearen iruzurra.....	10

## HILAREN PUNTAKO GAIA

Deflazioa doikuntza politiken ondorioa da.....	11
---	----

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren Azterketa honetan enpleguan zentratu gara, 2014an izan duen egoera eta eboluzioa aztertuz. Azkenaldian enpleguaren errekurazioaz hitz egiten duten diskurtsoak entzuten dira. Baina ez da hori katean eta enpresetan dagoen irudipena. Datuek ez dute establishment politiko eta ekonomikoak, nahita, ateratzen duen ondorio hori baieztatzen.

Manu Robles-Arangiz Institutua  
[www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)  
Twitter: @mrafundazioa

\* Txosten hau 2015/03/05ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

# Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

## 1. Enpleguaren egoera

2014ko laugarren hiruhilekoaren BAIren datuek erakusten dute biztanleria aktiboa, hau da, lana dutenak edo aktiboki bilatzen ari direnak, 1.359.300 izan direla HEH (1.048.600 EAEn eta 310.700 Nafarroan).

Biztanleria aktiboaren bilakaerak erakusten du azken urtean mantendu egin dela (3.700 pertsonako hazkundera izan du), azken hiruhilekoan 30.400 pertsona gehiago izan diren arren. 2010eko azken hiruhilekotik, aldiz, 39.300 pertsona gutxiago dira.

25 urtetik beherako biztanleria aktiboa 65.500 pertsonakoa izan da, eta bere eboluzioa are larriagoa da. Azken urtean 69.600 pertsonatik 65.500era jaitsi da (1.500 pertsona azken hiruhilekoan), eta 2010 bukaeratik ia heren bat jaitsi da (90.900etik 65.500era, %28a).

Biztanleria landuna, hau da, enplegua duena, 1.138.800 pertsonakoa izan da (874.500 EAEn eta 264.300 Nafarroan). HEHn biztanleria landunaren hazkundera azken urtean 7.500 pertsonakoa izan da (2.500 EAEn eta 5.000 Nafarroan). Baina 2010 urtetik 103.700 pertsona gutxiago dira, %8,3 gutxiago.

Azken urtean enplegua duten pertsonak 7.500 gehiago diren arren, jardunaldi osoa lan egiten duten pertsonak 23.200 gutxiago dira, beraz, jardunaldi partziala duten pertsonak 30.700 gehiago dira.

Horrela, enplegu partzialak enplegu guztiaren %16,6a izatetik enpleguen %18,9a izatera pasa dira 2014an (2010ean baino 3,9 puntu gehiago).

Sexuaren arabera biztanleria aktiboak izan duen bilakaera aztertzen badugu, azken urtean enplegua duten emakumeak 10.100 gehiago direla ikusi dezakegu (538.000 izan arte), bitartean gizonezkoen artean 2.500 okupatu gutxiago daude (600.400 guztira). Eboluzioa hau jardunaldi partzialen igoerak azaltzen du, batez ere emakumeei eragiten dielako, (azken urtean 25.300 emakume gehiago ari dira jardunaldi partzialean),

nahiz eta gizonezkoen artean ere enplegu mota hau hazi egin den (5.700 gehiago).

Ondorioz, enplegu partzialen %82,8a emakumeenak dira (gizonezkoenak %17,2 dira).

Soldatapeko pertsonak 947.400 izan dira 2014ko laugarren hiruhilekoan, 737.400 EAEn eta 210.000 Nafarroan, azken hiruhilekoan 9.500 pertsona gehiago izanik.

Azken urteko eboluzioak erakusten du soldatapeko enplegua duten pertsonak 12.900 gehiago direla. Hazkundera EAEn dagokio (18.500 pertsona gehiago dira), Nafarroan kopurua 5.600 jaitsi baita. Azken urteetako eboluzioa begiratu, 2010 bukaeratik, 98.900 soldatapeko enplegu galdu dira, 74.800 EAEn eta 24.100 Nafarroan.

Soldatapeko enpleguaren eboluzioa aztertzen badugu, biztanleria landunarekin gertatzen den bezala, emakumeen enplegua hazi dela ikusiko dugu, 2013 bukaeran soldatapekoak 459.300 izanik, 2014ko azken hiruhilekoan 476.000 izan baitziren (16.900 gehiago). Gizonen artean, eta epealdi berean, soldatapeko enplegua 4.200 murriztu da (475.400etik 471.200era), ondorioz eta

### Soldatapeko pertsonen eboluzioa sektoreen arabera. 2010-2014, HEH

	2014-4H	2014-3H	2013-4H	2010-4H	2010-2014
<b>Lehen sektorea</b>					
Nafarroa	2.800	3.500	5.900	4.200	-1.400
EAE	2.800	2.800	2.700	2.600	200
HEH	-5.600	6.300	8.600	6.800	-1.200
<b>Eraikuntza</b>					
Nafarroa	8.700	9.200	8.300	16.800	-5.800
EAE	30.300	34.300	37.800	47.200	-37.800
HEH	39.000	43.500	46.100	64.000	-43.600
<b>Industria</b>					
Nafarroa	58.700	61.700	62.600	64.500	-8.100
EAE	156.400	162.000	159.400	194.200	-16.900
HEH	215.100	223.700	222.000	258.700	-25.000
<b>Zerbitzuak</b>					
Nafarroa	139.800	137.900	138.800	148.700	-8.900
EAE	548.000	526.500	518.900	568.200	-20.200
HEH	687.800	664.400	657.700	716.900	-29.100

Iturria: BAI



lehen aldiz, soldatapeko emakume gehiago daude HEHn soldatapeko gizonetzkoak baino.

HEHn soldatapeko enplegua sektoreen arabera aztertzen badugu, nekazal sektoreak (soldatapeko pertsonen %0,6ak lan egiten du sektorean) 3.000 soldatapeko enplegu galdu ditu azken urtean, honek %34,9ko jaitsiera suposatzen du. Eraikuntzan (soldatapeko enpleguen %4,1 ordezkatzeko du), 2010etik enpleguen %39a suntsitu da (25.000), eta azken urtean 4.500 enplegu suntsitu dira.

Horrela, industria sektoreak 2014ko azken hiruhilekoan soldatapekoen %22,7 ordezkatzeko ditu 215.100 enplegurekin. Honek esan nahi du azken urtean industri sektorean 6.900 enplegu suntsitu direla, eta 8.600 azken hiruhilekoan.

Zerbitzu sektoreak soldatapeko biztanleriaren %72,6a biltzen du, eta 30.100 enpleguko igoera izan du azken urtean (23.400 azken hiruhilekoan), nahiz eta 2010etik 29.100 enplegu galdu dituen.

Sektoreen eboluzio ezberdin honek azken urteetan soldatapeko enpleguaren osaeran aldaketak ekarri ditu. Ondorio nagusia industri sektoreak izan duen pisu galera da, krisia hasi zenetik %26,6tik %22,7ra pasa baita (3,9 puntu gutxiago), zerbitzu sektorea %64,5etik %72,6ra pasa den bitartean (8,1 puntu irabazi ditu).

Behin-behinekotasunari dagokionez, HEHn 210.800 pertsona ari dira aldi baterako kontratuekin, iaz baino 12.200 gehiago. Behin-behinekotasuna bi lurraldeetan hazi da, EAEn 153.200etik 159.000ra igoz (5.800 gehiago), eta Nafarroan 45.400etik 51.800era (6.400 gehiago).

Sexuaren arabera, behin-behinekotasuna gehiago sufritzen dute emakumeek, aldi baterako enpleguen %58,5a (123.400) emakumeena baita. Gizonezkoen artean aldi baterako enpleguak dituztenak 87.500 dira (%41,5a).

Beraz, 2014 enpleguaren inguruko ondorio nagusiak hauek dira:

- Enplegua duten pertsonen kopurua (lاندunak) hazi egin da.
- Baina hazkunde hau batez ere enplegu partzialengatik eta behin-behinekotasunagatik eman da.


- Enplegu prekario honen hazkundera prekaritate gehien sufritzen dutenen artean ematen da, emakumeak eta zerbitzu sektorea.

## 2. Langabezia, behin-behinekotasuna, eta Europako datuak

Enpleguaren errekupeziario buruz ari diren mezuen aurrean, nazioarteko egoerarekin eginiko alderaketak benetan daukagun egoera islatzen du.

Langabezia tasa HEHn %16,2koa da BAiren 2014ko azken hiruhileko datuen arabera. Europa mailan (2014ko hirugarren hiruhilekoan) laugarren tasarik altuena izan da, Txiprek (%16,3), Espainiar Estatuak (%23,8), eta Greziak (%25,7) bakarrik gainditzen dute. Horrela, HEHak UE-28ko batez besteko langabezi tasa (%9,8ko da) 6,4 puntutan gainditzen du.

### Langabezi tasa 28-EB, 2014 III. hiruhilekoa



Iturria: Eurostat, BAI

EAEko langabezi tasa %16,6koa izan da, 28-EBko batatz bestekoa baino 6,8 puntu altuagoa, eta

Nafarroako langabezi tasa, berriz, %14,9koa izan da. Hala ere, esan behar da BAIk ematen duen Nafarroako datua (lanik ez dutenak eta Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emanda daudenak, eta lanik ez dutenak eta Enplegu Zerbitzuan izena eman gabe dutenak hartu beharko lituzke), Enplegu Zerbitzuan izena emanda dagoen populazio langabetua baino baxuagoa dela. Ezberdintasuna hain da esanguratsua (BAIk 46.400 ematen du 2014ko azken hiruhilekoan eta Enplegu Zerbitzuan otsailean 49.049 daude izena emanda), langabezian izena emandako datuarekin kalkulatu bagenu langabezia tasa %15,8koa izango litzatekeela.

Langabezia tasaren eboluzioari dagokionez, azken urtean %16,5etik %16,2ra jaitsi dela ikus dezakegu HEH, 0,3 puntu. Hala ere, langabezi tasaren jaitsiera handiagoa izan da Europan, zehazki, 2013ko hirugarren hiruhilekotik 2014ko hiruhileko berean %10,6tik %9,8ra jaitsi da, 0,8 puntu.

Lurraldearen arabera, EAEn langabezi tasa %16,6an mantendu da, Nafarroan %16,4tik %14,9ra jaitsi den bitartean.

Gazteen langabezia tasa (25 urtetik beherakoa) %42koa da HEHn. Honek esan nahi du 28-EBko batez bestekoa baino 20,7 puntu altuagoa dela, 2014ko hirugarren hiruhilekoan %21,3koa izan baitzen. EAEn %43,2koa da, Nafarroan %39,1ekoa den bitartean.

Gazteen langabezia tasaren inguruan azpimarratu behar da azken urtean eman den jaitsiera (%47tik %42ra), batez ere biztanleria aktibo gaztearen jaitsieragatik eman dela. Hau da, lanean dauden edo lanerako prest dauden gazteak iaz baino 4.100 gutxiago dira, langabezian daudenak 32.700etik 27.500ra pasa diren bitartean, 5.200 gutxiago. Honek esan nahi du langabezia tasaren beherakada ez dela eman 25 urtetik beherakoen artean enplegua sortu delako, enplegua modu aktiboan bilatzen ez dutelako baino.

Langabezia tasa altuenetakoa izateaz gain, Europako prekaritate altuenetakoa ere bada. Horren adibidea da behin-behinekotasun tasa.

Behin-behinekotasun tasa 2014 bukaeran %22,3koa izan da. Honek esan nahi du azken urtean puntu bat igo dela. EAEn behin-


behinekotasun tasa %21,6an dago (0,3 puntu igo da), Nafarroan aldiz %24,7an kokatzen da (2013 bukaeratik 3,6 puntu igo ondoren).

Sexuaren arabera bilakaera oso ezberdina da. Emakumeen artean behin-behinekotasuna %25,9an kokatzen da, azken urtean 1,4 puntu igo ondoren. Gizonezkoen artean 7,3 puntu baxuagoa da, %18,6a, azken urtean 0,5 puntu igo ondoren.

Europan, behin-behinekotasun tasa %14,4an kokatzen da, hau da, HEHn baino 7,9 puntu gutxiago. Gainera eboluzioak erakusten du, tasa igo den arren, gutxiago igo dela, azken urtean 0,3 puntu.

Sexuaren arabera, batez besteko behin-behinekotasun tasa Europa mailan emakumeen artean %14,7an kokatzen da, HEHn baino 11,2 puntu gutxiagotan. Gizonezkoen artean behin-behinekotasuna baxuagoa da emakumeena baino Europan ere, %14,2koa (0,5 puntu baxuagoa), eta HEHko batez bestekoa baino 4,4 puntu baxuagoa.

## Behin-behinekotasun tasa 28-EB, 2014 III. hiruhilekoa



Iturria: Eurostat, BAI

Horrela, langabeziari eta enpleguaren prekaritateari dagokionez (behin-behinekotasunaren ikuspuntutik), HEHn 28-EBaren buru gara.

Honekin, ondoriozta dezakegu egoera larria dela:

- Langabezia tasa 28-EBeko batez bestekoa baino (%16,2) 6,4 puntu altuagoa da.

Behin-behinekotasuna ere askoz altuagoa da HEH Europan baino, batez ere emakumeen artean.



### 3. Langabezia eta langabeziaren estaldura

Enplegu Zerbitzu Publikoek HEHan 219.944 pertsona zerrendatu dituzte langabezian 2015eko otsailean, urtarrilean baino 1.649 gutxiago eta duela urte bete baino 9.174 gutxiago. Lurrealdean, EAEn 170.895 langabetu izan dira, eta Nafarroan 49.049.

Sexuaren arabera aztertzen badugu, langabetuen %52,8a emakumeak izan dira (116.099), eta gainontzeko %47,2a gizonezkoak (106.845). Azken urteko bilakaerak emakume eta gizonen arteko aldea handitzen ari dela erakusten du, 2014ko otsailean emakumeak langabetu guztien %51,6 zirelako (1,2 puntu gutxiago), eta gizonezkoak %48,4 (1,2 puntu gehiago).


Langabezia jaitsi izanaren arrazoietakoa bat jende askok atzerrira alde egin behar izan duela da. Azken urtean zehar, 2014an, migrazio saldoak 3.175 pertsonak alde egin dutela erakusten du, hau da, 3.175 pertsona gehiagok alde egin dute HEHtik, etorritakoak baino. Gainera 2010etik ikusten badugu, 48.038 izan dira kanpora joandako pertsonak. Hauetako asko gazteak eta enplegurik gabe daudenak, eta alde egiterakoan langabezia zerrendetatik ateratzen direnak.

Langabeziaren inguruan ematen den egoera larrietakoa iraupen luzeko langabezia da. HEHan 139.000 pertsonak urte bete baino gehiago daramatza langabezian (duela urte bat baino 9.800 gehiago, eta aurreko hiruhilabetean baino 10.100 gehiago). Honek suposatzen du langabeziaren %63a, iraupen luzeko langabezia dela.

Duela urte bat iraupen luzeko langabezia %57,6a zen, orain baino 5,4 puntu gutxiago, eta 2010etik 19,4 puntu handitu da.

Sexuka aztertzen badugu, iraupen luzeko langabeziak gizonezkoek gehiago eragiten die, guztiaren %56,6a (78.700 gizonezko), eta egoera honetan dauden emakumezkoak 60.300 dira.

### Langabezia eta iraupen luzeko langabezia, HEH, 2008-2014



Iturriak: Enplegu Zerbitzu Publikoa, BAI

Iraupen luzeko langabeziari, enplegurik gabe daudenek pairatzen duten langabezia-estaldura eza eta babes sozial falta gehitu behar zaizkio.

2014ko abenduan, langabezian izena emandakoen %55,3k (118.028 pertsonak) ez zuen inolako langabezia prestaziorik edo subsidiarik jasotzen.

Kotizaziopeko prestazioa soilik %25,1ak jaso zuen (prestazio honen zenbatekoa eta iraupena egindako kotizazioen arabera da). Era honetan, EAeko batz besteko kotizaziopeko prestazioa 903,1 eurokoa izan da, eta 905,3 eurokoa Nafarroan.


Gainontzerako %19,6ak langabezia subsidioa edo Gizarteratze Errenta Aktiboa jaso zuen (426 eurokoak direnak).

Bilakaerari erreparatzen badiogu, gero eta jende gehiago inongo babesik gabe eta estaldura sozialetik kanpo dagoela ikus dezakegu. Azken urtean babesik gabeko egoeran daudenak 7,3 puntu hazi dira, 104.971 lagunetik 118.028ra pasaz, 13.057 gehiago.

Honekin batera, kotizaziopeko prestazioa jasotzen dutenak gero eta gutxiago dira, 6,1 puntu gutxiago, 68.357tik 53.547ra jaitsez, 14.810 gutxiago. Gainera prestazio honen batz bestekoa ere jaitsi egin da, 26,8 euro EAEn, eta 22,2 Nafarroan.

Langabezia subsidioa edo Gizarteratzeko Errenta jasotzen dutenak 1,2 puntu gutxitu dira (45.534 gutxiago).

## Langabezia-estaldura, HEH, 2013-2014



Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Langabeziaren estalduran eman den jaitiera prestazioen gastuaren murrizketan antzematen da.

2014ko abenduan prestazio, subsidio eta Gizarteratze Errentaren gastua 99,8 milioikoa izan zen HEHan, duela urte bat baino 27,1 milioi gutxiago, hau da, %21,4eko murrizketa eman da.

Langabeziaren estalduraren gastuaren bilakaera oso kezagarria da. Azken bi urteetako gastuari erreparatzen badiogu 2013tik 2014ra 306,9 milioi euro gutxiago gastatu dira. Hau da, %19,1eko murrizketa eman da.

Murrizketa hau 220,7 milioikoa izan da EAEn, eta 86,2 milioietakoa Nafarroan (%17,6ko murrizketa eta %20,7koa hurrenez hurren).

Atzerago jotzen badugu, 2010ean 2014an baino gehiago gastatu zela ikusiko dugu, 262,9 milioi euro gehiago hain zuzen (%16,2 gehiago).

## Langabezia-estaldura gastua, HEH, 2010-2014

	2014	2013	2010	2013-2014	2010-2014
Nafarroa	329,6	415,8	403,3	-86,2	-73,7
EAE	1.033,5	1.254,3	1.222,7	-220,7	-189,2
HEH	1.363,1	1.670,0	1.625,9	-306,9	-262,9

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Gainera, langabezia prestazioen gastuan eman den murrizketa ez dator bat langabeziaren bilakaerarekin. Izan ere, gastua murriztu den

bitartean, langabezian izena emandakoen kopuruak gora egin du.

Honen erakusle da 2010eko abenduan HEHan 188.268 pertsona zeudela langabezian izena emanda, eta hilabete horretako gastua 129,7 milioikoa izan zen. Baina 2014ko abenduan, langabeziak %13,4 egin zuen gora (213.557 langabetu), eta gastua %23,1 murriztu da (29,9 milioi euro gutxiago). Honek suposatzen du langabezia-estalduraren gastu totalaren eta langabetu kopuruaren arteko ratioa 689 eurotatik 467,5 eurotara jaistea (221,5 euro gutxiago), %32,1.

## Langabezia-estalduraren gastuaren eta langabeziaren bilakaera, HEH, 2010-2014

	Langabezian izena emandakoak	Prestazio eta subsidioen gastu guztia (milioi euro)	Langabetu kopurua eta gastu totalaren arteko ratioa (euros)
2010eko abendua	188.268	129,7	689,0
2013eko abendua	218.862	126,9	580,0
2014eko abendua	213.557	99,8	467,5

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Honen inguruan ateratzen den ondorio nagusia, beraz, nahiz eta langabezian izena emandakoen kopuruak behera egin (azken hilabeteetan gora egin arren), langabezian daudenen egoera gero eta larriagoa dela da:

- Alde batetik iraupen luzeko langabeziak gora egin du.
- Eta bestetik, langabezia-estaldura murriztu egin da: jende gehiago langabezian egon arren, prestazio eta subsidioetara bideratutako gastua murriztu egin da azken urteetan, eta langabetu kopuruaren eta gastu osoaren arteko ratioa %32,1 murriztu da ondorioz.

Gainera, azken hilabeteetan langabezian izena emandakoen kopurua jaitsi izanak ez du enplegua sortu denik suposatzen. Jaitiera horren arrazoi ere badira lana aurkitzeko esperantza galdu izanagatik lana bilatzeari uko egin diotenak, 2010etik migrazio saldoak 48.038 pertsonen atzerrira alde egin dutela erakusteak, edo





langabetuen %55,3k langabezia-saririk ez jasotzeak.

## 4. Kontratazioa

### Aldi baterako kontratazioa

Behin-behinekotasuna, enpleguaren elementu prekarizatzailea den heinean, enpleguaren kalitatearen erakusle ere bada. Azken urteetan eman den enplegu suntsiketan hala ikusi da, izan ere, enplegu suntsiketa horrek behin-behineko kontratua zuten pertsoneri eragin die lehendabizi.


Soilik horrela ulertu daiteke 2007 bukaeran (krisia hasi aurretik) behin-behinekotasun tasa %28,2koa izatea HEHan (%28,3 EAEn eta %27,5 Nafarroan), eta 2014ko azken hiruhilekoan %22,3koa izatea (%21,6 EAEn eta %24,7 Nafarroan).

Dena den, aldi baterako enpleguaren suntsiketa, behin-behineko kontratazioaren igoerarekin batera eman da.

Honela, 2014an zehar sinatutako kontratu guztien %93,5a aldi baterako izan dira (%94,7 Nafarroan eta %93,1 EAEn). Datu hauek krisi aurreko datuekin alderatzen baditugu, orain behin-behinekotasunak kontratazioan pisu handiagoa duela ikus dezakegu, nahiz eta orduan ere oso zifra altuak izan.

2007an behin-behineko kontratuen pisua, guztien %90,7koa zen HEHan (%91,2 EAEn eta %89 Nafarroan).

### Behin-behineko kontratuen bilakaera. 2007 - 2014, HEH



Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa


### Lanaldi murriztuen kontratazioa

Kontratazioan behin-behinekotasuna igotzeari, lanaldi murriztuak dituzten kontratuen hazkundea gehitu behar zaio.

HEHan 2014an zehar sinatu diren kontratu guztien %36,9, lanaldi murriztuakoak izan dira. Honek 2010etik 3,8 puntu gora egin duela suposatzen du, orduan sinatutako lanaldi murriztuko kontratuak guztien %33,1 ziren eta.

Lurraldeka, EAEn sinatutako kontratuen %40,1 lanaldi murriztukoak dira, 2010ean baino 5,6 puntu gehiago (%34,5). Nafarroan 2014ko kontratu guztien %28,4ak izan du lanaldi murriztua, 2010ean baino 0,3 puntu gehiago (%28,1).

### Lanaldi murriztua duten kontratuen bilakaera 2010-2014, HEH



Iturriak: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Beraz, ondorengo ondorioztatzen da:

- Behin-behineko kontratazioa eta lanaldi murriztuak gero eta gehiago dira kontratazio berrietan. Beraz, kontratazio berriak are eta prekarioagoak dira.

## 5. Gizarte Segurantzarako afiliazioa


Gizarte Segurantzarako afiliazioaren datuek ere ederki erakusten dute zenbat eta zenbat enplegu suntsitu diren. Horrela, 2007ko abendutik 2014ko abendura bitarte, 122.015 lagun gutxiago dago HEHn Gizarte Segurantzarako afiliatuta (%11,6);

haietatik 120.188 erregimen orokorrean zeuden afiliaturik.

EAEEn, 89.036 lagun gutxiago dago afiliatuta Gizarte Segurantzaren epealdi berean, hau da, %9,1. Horietatik 87.114 araubide orokorrean zeuden. Nafarroan, bilakaera are txarragoa izan da. Izan ere, 2007ko abendutik Gizarte Segurantzarako afiliazioaren % 11,6 galdu da; hau da, 32.980 lagun gutxiago. Are txarragoa izan da erregimen orokorreko afiliazioaren bilakaera Nafarroan, 33.074 afiliazio galdu baitira epealdi horretan.

2013ko abendutik hona izaniko bilakaerari erreparatuta, ikusiko dugu HEHn 17.197 lagun gehiago daudela afiliatuta; zehazki, 12.073 gehiago EAEEn, eta 5.124 gehiago, Nafarroan.

## Gizarte segurantzarako afiliazioa, guztira, HEH 2007-2014 (abenduetan)



Iturria: Gizarte Segurantzaren

Kontutan hartu behar da lanaldi murriztuko bi kontratu dituen pertsona bat birritan kontabilizatzen dela Gizarte Segurantzako kotizatzaile gisa. Honek, lanaldi murriztuko kontratazioaren hazkundera enpleguaren sortzearekin nahastera eramaten gaitzake.

Araubide orokorraren bilakaerari dagokionez, 12.888 lagun gehiago dago 2013ko abendutik hona HEHn. Lurralde lurralde, EAEEn 10.683 lagun gehiago daude araubide orokorrean afiliatuta, eta Nafarroan, 2.204 gehiago.

## Gizarte segurantzako afiliazioaren bilakaera 2013 A 2014, HEH

	Erregimen Orokorra	Guztira
EAE	10.683	12.073
Nafarroa	2.204	5.124
HEH	12.888	17.197

Iturria: Gizarte Segurantzaren

Gizarte Segurantzaren afiliazioaren hazkunderaren inguruan, kontutan izan behar da ondorengoak:

- Lan partziala handitzeak esan nahi du, denbora partzialeko bi kontratu edo gehiago dituen pertsona berbera bi afiliazio edo gehiago direla Gizarte Segurantzaren. Beraz, Gizarte Segurantzako afiliazioak ugaritzeak ez du esan nahi jende gehiago lanean ari denik. Gainera, kontuan hartu behar da afiliazio horietako asko gertatu direla enpresek bere jardueraren zati handi bat gero eta gehiago kanpora ateratzen ari direlako eta azpikontratatzeko ari direlako. Horrek, jakina, prekaritatea areagotzen du. Gizarte Segurantzako afiliazio berrien %38 besterik ez da araubide orokorrean izan. Horrek esan nahi du jendea autonomoen araubidera eta gainerako araubide berezietara jotzen ari dela enplegu bila.

## 6. Errekuperazioa eta hazkunderaren iruzurra

Diskurtso ekonomiko ofizialak sinestarazi nahi digu krisia bukatu dela.

Esaten dutena sinistu ala ez, hori ez da gakoa. Gakoa banaketatan eta iraunkortasunean dago. Beharrezkoa da parametro ekonomiko eta sozialak errotik aldatzea. Bestela, eta kasurik onenean, banaketarik gabeko hazkunde fase batera itzuliko gara, banaketa orain arte ulertu den bezala behintzat (gehiago dutenetatik gutxiago dutenera).

Aurreko hazkunde ekonomiko fasean desberdintasunaren hazkunde handia eman zen. Azken hamarkadetan aplikatu diren politika neoliberal eta antisozialek azaltzen dute egoera hau. Hazkunderarekin bateragarria izan da prekaritatearen

zabaltzea. Era berean, dagoeneko enpleguak ez du bermatzen pobrezia egoeratik ateratzea. Gehien eta gutxien irabazten zutenen arteko aldea eta zorpetze maila ere, hazkunde garaian areagotu dira.

Kapitalak krisia aprobetxatu du instituzioei eta banaketa mekanismoei eraso egiten jarraitzeko (negoziazio kolektiboa txikitu edo zerbitzu publiko eta sozialak murriztu dira). Honek desberdintasunak areagotu besterik ez ditu egin. Eta ondorengo urteetan, hazkundera izan edo ez, norabide berean jarraitzeko oinarriak finkatu dira. Errenta klase ahulenetatik klase boteretsuenetara pasatzean oinarritzen den sistema ekonomiko batean barnetatzen ari gara. Gorantz doan banaketa bat da, ez beherantz doana. Iraultza bat, baina antisoziala.

Testuinguru honetan, eredu hau errotik zalantzan jartzeak izan behar du ekintza sindikalaren ardatza. Aberastasun banaketaren arauak aldatu behar dira, baita planetaren baliabideen muga fisikoen aurrean begiak isten dituen sistemari dagozkion arauak ere.

Banaketa eta iraunkortasuna defendatzeak erreperazio ekonomikoaren mantra ez onartzea dakar berarekin. Denaren gainetik, biztanleriaren gutxiengo bati mesede egiten dion eredia babestu nahi dute. Mantra horrek, eredu horrek, gaur egungo krisira eraman gaitu, eta eskubide eta ongizate galera etengabea ekarri du. Eta horrela izaten jarraitzea nahi dute. Ez gara tranpa horretan jausiko.

## Deflazioa doikuntza politiken ondorioa da

INERen arabera, iaz prezioak (KPI) espainiar estatuan %1 jaitsi ziren. 2015eko lehen hiletan ere joera antzekoa da: Urtarrilean prezioak %1,3 murriztu ziren urtearteko tasari dagokionez (azken hamabi hilabeteetako tasa), eta otsailean %1,1 jaitsi ziren.

Duela ia urtebete ohartarazi genuen oso posible zela deflazioa gertatzea (prezioen gainbehera jarraitua). Orduan azaldu genuen ekonomialari ofizialen tesia (egungo hondamendi ekonomiko eta sozialera ekarri gaituzten politiken aitzindariena): inflazioari aurre egiteko interes tasak jaitsi behar direla eta bankuei likidezia eman behar zaiela, kreditua gehi dadin. Horixe egin izan du, hain zuzen, Europako Banku Zentralak (EBZ). Baina begibistakoa da horrek ez duela deflazioa geldiarazi. Izan ere, asmoa ez baitzen hori. EBZren helburu nagusia bankuen erreskatea izan da, zor pribatua publiko bihurtuz. Eta hori lortu du.

Datuek erakusten dute Europar Batasuneko prezioen jaitsierarik nabarmenena gertatzen ari dela doikuntza politika gogorrenak ezarri diren lekuetan. Ez da harrizkoa. Izan ere, politika horrek -soldata murrizketak, lanaren prekarietatea, pentsioen eta beste gizarte-prestazioen jaitsieran lanpostu asko eta asko suntsitu ditu. Beraz, herritarren gehiengoa pobretu egin da, eta horixe da deflazioaren arrazoia.

Deflazioari bidezko erantzun bat emateko soldatek aberastasun orokorrean duten zatia handitu beharra dago (azken hamarkadetan gertatu den kontrakoa, hain zuzen). Gainera, aurrekontu-politikak ere goitik behera aldatu behar dira: lehenetsi egin behar da politika sozialetako gastu publikoa (gizarte-prestazioak eta kalitatezko zerbitzu publikoak), eta ekonomiaren birmoldaketa sozial eta ekologikoa bultzatu. Finean, azken urteetan Euskal Herrian eta Europa mailan aplikatu izan diren politikak baztertu egin behar dira. Alabaina, horretarako borondate politikorik ez dugu ikusten.

